

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua,
Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatua,
Foruko alkate eta zinegotziak,
Gainerako alkateak eta zinegotziak,
euskaltzainkideak,
Joan Mari Torrealdairen etxekoak eta senideak,
foruarrak,
jaun-andreak,

Egun on guztioi,

Joan Mari Torrealdaik gaur bere sarrera-hitzaldia egingo du Euskaltzaindian, euskararen Akademian.

Horretarako batu zaituzte gure erakundeak hona, Forura, haren jaioterrira.

Niri dagokit, euskaltzainburu naizen aldetik, zuei agur-hitzak esatea. Agur-hitzak, eta, esan dezadan nabarmen, ohore-hitzak, bitzuok merezi baititu gure Joan Marik.

Hasteko, agur-hitza egiten diogu berari aspaldiko lagunek, urte luzeetan ondutako adiskidetasunaren seinale.

Agur egiten dio, orobat, bere herriak, behinola hemen jaio zen Joan Mari Torrealdaik Euskal Herri osoan zehar zabaldu eta barreiatu dituelako euskara eta euskal kultura, bere euskaltzaletasunaren bidez. Horretan, ahalak eta leherrak egin dituela, begi-bistakoa da.

Agur-hitzak giza semeari badagozkio, ez gutxiago, ohore-hitzak, ikertzaile eta akademikoari.

Ohore-hitzak, aurrenik, bere lan nekaezina eredugarria baita euskalgintzaren barruan, dela saiakeraren arloan, dela kazetaritzaren eremuan, dela bibliografiaren esparruan.

Ohore-hitzak, hurrenik, euskal kulturaren sustatzaile eta defendatzaile izateagatik. Azalean baino, sakon, zehatz eta goi mailan jokatu du Torrealdaik, eta gure hizkuntzaren adarretatik hainbatetan berritzaile dugu.

Ohore-hitzak eta aitortza, azkenik, gaur bera eta beste batzuk euskal kultura sustatzeagatik une mingotsak jasaten ari direlako. Horretan ere, zin-zinezko gizatasuna eta zintzotasuna erakutsi dizkigu Joan Mari Torrealdaik.

Agur-hitzak, ohore-hitzak, eta, nola ez, diosalak ere bai, haren etxeko, senide, lankide, laguntzaile zarenontzat... Zuek guztiok ondo dakizue, euskaltzale ez ezik, giza lege osokoa dela Joan Mari Torrealdai.

Hala hartzen dugu guk akademian.

Eskerrak eman behar dizkizuet, halaber, zuei, Euskaltzaindiaren izenean, gurekin gaur hemen egoteko gonbita onartzeagatik eta guri laguntzeagatik.

Orain, jarrai dezagun ospakizunarekin.

Andres Urrutia
euskaltzainburua